## ZARAUZKO UDALA

*Abendañoko birpartzelazio proiektuko 14, 15 eta 33 partzelen xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.*

2014ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

2013ko urriaren 31n egindako bilkuran, Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea, hainbat baldintza jarrita, Abendaño industrialdeko 14, 15 eta 33 partzelen Xehetasun Azterketari (Abendaño industrialdea plan orokorreko 21 eremuan dago, 14 eta 15 partzelak industrialak dira eta 33 partzela, berriz, jabetza pribatuko baina erabilera publikoko bigarren mailako bideak). Gesalaga Precocinados SA sozietateak abiarazi du Xehetasun Azterketa hori.

Akordioa eragindako partzeletako jabeei jakinarazi zitzaien, eta espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Espedientea aztertu ondoren, eta Hirigintza arloko zinegotziak hala proposatuta, Tokiko Gobernu Batzarrak

ERABAKI DU

*Lehena:* Behin betiko onespena ematea Abendaño industrialdeko 14, 15 eta 33 partzelen Xehetasun Azterketari (Abendaño industrialdea plan orokorreko 21 eremuan dago, 14 eta 15 partzelak industrialak dira eta 33 partzela, berriz, jabetza pribatuko baina erabilera publikoko bigarren mailako bideak). Gesalaga Precocinados SA sozietateak abiarazi du Xehetasun Azterketa hori.

Onartu den proiektua 2013ko urrikoa da, Josu Aranguren industria ingeniariak sinatutakoa.

Onespena ondorengo baldintzetan eman da:

— Ibilgailuen zirkulazio sarea (O01 eta O02 planoak). Xehetasun azterketan marraztu diren partzela pribatuetarako sarbideak orientagarriak izango dira, besterik ez. Udalarentzat ez dute arau izaerarik edukiko, eta ez dira lotesleak izango.

— Abendañoko birpartzelazio proiektua aldatu egin beharko da xehetasun azterketari egokitzeko eta 14 eta 15 partzelen eta bien arteko bigarren mailako bidearen (33 partzela) kokapena, konfigurazio fisikoa eta azalerak formalki arautzeko.

— Lekuz aldatuko den bigarren mailako bidea urbanizatu egin beharko da, Gesalaga Precocinados SA sozietateak eraikitako pabiloi industrial berriari lehen erabilerako lizentzia eman baino lehen.

*Bigarrena:* Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

*Hirugarrena:* Adieraztea indargabetuta geratu dela Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko uztailaren 6an behin betiko onetsi zuen xehetasun azterketa, Abendaño industrialdeko birpartzelazio proiektuko 14 eta 15 partzelena, hain zuzen ere.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Nahi duenak berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, edo zuzenean aurkatu bi hilabeteko epean Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Estudio de detalle de las parcelas 14, 15 y 33 del proyecto de reparcelación de Abendaño. Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 31 de enero de 2014, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 31 de octubre de 2013 acordó otorgar la aprobación inicial, con condiciones, al Estudio de Detalle para las parcelas industriales 14 y 15 y para la parcela 33 (viales secundarios de propiedad privada y uso público) del proyecto de reparcelación de la zona industrial de Abendaño (ámbito 21 del plan general) promovido por la sociedad Gesalaga Precocinados SA.

El acuerdo fue notificado a los propietarios de las parcelas afectadas y el expediente fue expuesto a información pública. No se presentaron alegaciones.

Previo análisis del expediente, y a propuesta del concejal del área de Urbanismo, la Junta de Gobierno Local

ACUERDA

*Primero:* Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para las parcelas industriales 14 y 15 y para la parcela 33 (viales secundarios de propiedad privada y uso público) del proyecto de reparcelación de la zona industrial de Abendaño (ámbito 21 del plan general) promovido por la sociedad Gesalaga Precocinados SA.

El documento aprobado es el de octubre de 2013 suscrito por el ingeniero industrial Josu Aranguren.

La aprobación se otorga con las siguientes condiciones:

— Red de circulación rodada (planos O01 y O02). Los accesos a parcelas privadas dibujados en el estudio de detalle se considerarán simplemente orientativos. No tendrán carácter normativo ni vinculante para el Ayuntamiento.

— Habrá de modificarse el proyecto de reparcelación de Abendaño para adecuarlo al estudio de detalle y regularizar la ubicación, la configuración física y la superficie de las parcelas 14 y 15 y del vial secundario existente entre ambas (parcela 33).

— El vial secundario a desplazar deberá ser urbanizado antes de otorgar la licencia de primera utilización al pabellón industrial construido por la sociedad Gesalaga Precocinados SA.

*Segundo:* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente el acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

*Tercero:* Declarar que queda derogado el estudio de detalle que fue aprobado definitivamente por La Junta de Gobierno Local el 6 de julio de 2012, para las parcelas 14 y 15 del proyecto de reparcelación de la zona industrial de Abendaño.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente, en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2014ko otsailaren 3a.—Alkatea.

(522) (1093)

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 3 de febrero de 2014.—El Alcalde.

(522) (1093)